UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

# TREBAKUNTZA 2022-02: AHAZTU

**OHARRA:** *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

## OHIKO AKATSAK

1. ** Azken bilerako akta idazten ahaztu zaio idazkariari.*
2. ** Hirigintza batzordeko kide berriaren izena jasotzen ahaztu zait.*
3. ** Ba al dakizu oposaketetako epaimahaikoei mezua bidaltzen ahaztu zaidala?*
4. ** Excel programari buruz ikasitakoak egitea ahaztu zaio administrariari.*

## AZALPENA

Ahaztu aditzak -*t(z)en* edo -*t(z)ea* har ditzake, baina adiera desberdinarekin. Ez da gauza bera:

*Posta elektronikoaren bidez mezua* ***bidaltzen*** *ahaztu zait (lehen banekien, baina ahaztu egin zait).*

*Posta elektronikoaren bidez mezua* ***bidaltzea*** *ahaztu zait (mezua bidali behar nuen, baina ahaztu).*

**Beraz:**

1. Azken bilerako akta **idaztea** ahaztu zaio idazkariari.
2. Hirigintza batzordeko kide berriaren izena **jasotzea** ahaztu zait.
3. Ba al dakizu oposaketetako epaimahaikoei mezua **bidaltzea** ahaztu zaidala?

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**
www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

4. Excel programari buruz ikasitakoak **egiten** ahaztu zaio administrariari.

*************************************************************************************************
*************************************************************************************************
*************************************************************************************************

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)
Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!